

KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2017ko maiatzaren 8an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

11.- ZENBAIT IBILGAILUEN HORNIDURA RENTING SISTEMA BIDEZ.

Planteatutako gaia

Zenbait ibilgailuen hornidura renting sistema bidez.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2016ko abenduaren 24ko. Estatuko Aldizkari Ofizialean, Bermeoko Udalarentzat zenbait ibilgailu renting sistema bidez hornitzeko lehiaketaren deialdia zabaldu zan.

Bigarrena: Kontratazio mahaiak apirilaren 10eko sesioan, eskaintza guztiak zabaldua puntuaketa altueneko eskaintza onartzeko proposatu eban. **I. eranskin modura** agertzen dan sailkapena egokitu zan txosten teknikoaren baloraketaren ondorioz, espedientean agertu bezala.

Hirugarrena: Guzti honen aurrean AUTORENT ALQUILER DE VEHICULOS A LARGO PLAZO SL enpresaren eskaintza da abantaila handienekoa lote bietarako. Eskaintza osoa sinatuko dan kontratuari erantsita geratuko da.

Argudioak

Lehenengoa: Kontsignazino nahikoa dago gastu honetarako, Udal Kontu-hartzaileak ziurtatu ondoren, espedientean agertu bezala.

Bigarrena: Esleipendunak behin betiko bermea aurkeztu dau, 2017-04-25eko datakoa eta 2017012021 zenbakiduna, Bermeetarako Erregistro Berezikoa. Danetara: 17.858,98€ koa.

Hirugarrena: Azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartu dauan Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak kontratu armonizatuertarako ezarritako prozedura jarraitu da, Baldintza Plegu Tekniko eta Administratibo Berezieta oinarrituta.

Laugarrena: Esleipendunari jakinarazotea udalagaz izango dauzan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskeraz aurkeztu beharko dauzala.



Bosgarrena: 2016ko urtarrilaren 25eko 43. zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, Tokiko Gobernu Batzarraren eta Ekonomiako Zinegotzi Delegatuaren artean honela banandu dira eskumenak gastuen faseak onartzeko:

Tokiko Gobernu Batzarrak: AD faseak.

Zinegotzi Delegatuek: AD faseak (600,00€ rainoko gastuetan).

Kontu Batzordeko Zinegotzi Delegatua: OP faseak (edozein kopurutan).

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: 2017-72 zenbakidun kontratazio hau AUTORENT ALQUILER DE VEHICULOS A LARGO PLAZO SL enpresari lote biak esleitzea, ondorengo ezaugarriekin:

Xedea: Zenbait ibilgailu hornitzea renting sistema bidez.

1 Lote: bi (2) ibilgailu erratz-makina *Schmidt Swingo 200 Plus* (2 m³).

2 Lote: hiru (3) ibilgailu misto, "combi" furgoneta erakoak.

Kontratu epea: Berrogeita zortzi (48) hilabete.

Entrega epea: Hilabete.

Ordaintzeko epea: Ohikoa. Hileroko ordainketak, Banketxe domiziliazio edota transferentzia bitartez.

Kontratu prezioak:

Lehen lotea: 300.000,00€ gehi BEZ %21ari jagokozan 63.000,00€.

Bigarren lotea: 57.179,52€ gehi BEZ %21ari jagokozan 12.007,70€

Garraio kosturik: Ez.

Hobekuntza: Esleipendunaren eskaintzan agertzen diran hobekuntzak kontratuaren zati dira.

BIGARRENA: Jagokon kontratu administratiboa sinatuko da esleipendunarekin eta horren barri argitaratuko da kontratugilearen udal profilean eta baita BOE eta DOUEan ere.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkatearen aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2017ko maiatzaren 9an.

ONETSIA
ALKATEA

